



KIMIKARIN

STEAM TAILERRAK ERMUAN 2021



AURKIBIDEA

1. **INFORMAZIO OROKORRA** (Zer da, gure baloreak, helburuak)
 2. **COVID-19 EGOERA:** Azalpen laburra eta kontuan hartzeko neurriak.
 3. **KANPAMENTUAK:** 5 eguneko jarduerak, 3 aste guztira.
 - a. Informazio orokorra.
 - b. Programazioa.
- 
- 

ZER DA?


KIMIKARIN

Kimikarin zientziari buruzko jakin-mina haur eta gazteengan piztu nahi duen ekimena da.

Proiektua "Learning by doing" metodologia finlandiarrean oinarritzen da, hau da, eginez ikasten da. Horren bidez, zientziaren alderdirik ulergarriena erakusten dugu, "Learning" eta "Fun" kontzeptuekin loturak sortuz.

Parte-hartzaile bakoitzaren trebetasun pertsonalak lantzeko plataforma da, talde lana sustatzen dugun bitartean.





Gure Baloreak

KOOPERAZIOA: Dinamika eta jarduera guztiak elkarlanean aritzen dira. Alexander Graham Bell-ek esandakoan sinesten dugu: "Aurkikuntza eta hobekuntza bikainek adimen askoren lankidetzak dakarte beti".



ESPERIENTZIA: Zientziaren inguruan esperientziak sortzen ditugu, laborategiak eguneroko gaien inguruan simulatuz, kimikarekin nola erlazionatuta dauden ikusi ahal izateko. Parte-hartzaile bakoitza benetako zientzialari sentiaraztea bilatzen dugu, ordu batzuetarako ere.



JOLASTUZ IKASI: Ikasteak ez luke aspergarria izan behar eta aldatu nahi dugu. Kimikarinen ez da aspertzeko astirik egongo, gamifikazioaren bidez ikasteko gogoz ziurtatzen dugu.

Helburu orokorrak

Umeak euren ikaste
prozesu praktikoen
protagonistak bilakatzea

Ikaste prozesua modu
kooperatibo batean
garatzea

Praktikaren
bidezko
metodologia
baliagarri bat
sustatzea

Hezkuntza
formaletik kanpo
ikaste esperientzia
kaleratu

Parekidetasuna sustatu.
Emakumeak zientzian
duen paperari
garrantzia eman.

1. Eta Covid-19 aurrean... Zer?

2020 eta 2021a urte ezberdin bat izan da denontzat. Egoera ikusita, orain inoiz baino gehiago konturatu gara gazteentzako aisialdi hezigarriko ekintzek duten garrantziaz.

Azken hilabeteetan gure osasuna arreta izan da eta, ondorioz, haurren garapena alde batera utzi da.

Opor hauetan hauetan, garapena eta aisia erdigunean jarri nahi ditugu segurtasun neurriak ahaztu gabe eta gure tailerrak egoerara egokitu gabe.



1. Eta Covid-19 aurrean... Zer?

HELBURU NAGUSIAK


Ikasketa eta aisialdi
espazio seguruak sortu

Egoera berri
honetara egokitutako
tresnak nahiz
dinamiken erabilera

Aplikatutako segurtasun neurriak:

- Maskara.
- Gel hidroalkoholikoa tailerreko sarrera eta irteeran.
- Eskularruak esperimentuak burutzeko.
- 6-7 laguneko taldeak. (5 haur + monitore 1)





2. 5 EGUNEKO TAILERRAK

a) SAIOAREN DESKRIBAPENA

DEFINIZIOA: Kimikarin taldeak gazteen arteko **3 asteko jarduerak** proposatzen dugu, non esperimentuak, jokuak eta talde dinamikak landuz zientziari buruz ikasiko dugu, esukera sustatuz.

ADIN TARTEA: 1. eta 6. mailako bitarteko partaideak.

IRAUPENA ETA DATAK:

Lehen astea: EKAINAK 28-29-30, UZTAILAK 1-2 (5 eta 6. maila)

Bigarren astea: UZTAILAK 5-6-7-8-9 (1. eta 2. maila)

Hirugarren astea: UZTAILAK 12-13-14-15-16 (3. eta 4. maila)

BESTELAKO INFORMAZIOA:

(*) Partaideak egindako esperimentuak etxera eramateko aukera izango dute.

(**) Tailerra euskaraz izango da.

PROGRAMAZIOA

	<u>1. EGUNA</u>	<u>2.3.4. EGUNAK</u>	<u>5. EGUNA</u>
<u>9:00-9:30</u>	Aurkezpena eta taldeen sorrera	Talde dinamika	Talde dinamika
		azalpen eta jokuak	jokuak
<u>9:30-10:30</u>	Talde dinamikak	ESPERIMENTUAK	ESPERIMENTUAK
<u>10:30-11:00</u>	ESPERIMENTUAK		
<u>11:00-11:30</u>	ATSEDENALDIA		
<u>11:30-13:00</u>	ESPERIMENTUAK	ESPERIMENTUAK	ESCAPE ROOM
<u>13:00-13:30</u>	azalpen bisuala eta itxiera	azalpen bisuala eta itxiera	azalpen bisuala eta diplomen banaketa

(*) Tematika desberdinak egun bakoitzeko.